

OSOKO BILKURA

SESION PLENARIA

TOKIA / LUGAR: Udaletxea  
EGUNA / FECHA: 24/09/2014  
HASIERA / INICIO: 19:30  
AMAIERA/FINAL: 20:30

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDESA  
Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:  
Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)  
Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)  
Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu)  
María Begoña Salbidegoitia Arana (Bildu)  
Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)  
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)  
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)  
Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL  
V́ctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria  
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

# Akta

Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udalaren Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Andreak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

## **1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zituen 2014ko ekainaren 25eko eta uztailaren 2ko saioko aktak.

## **1.º.- Acta de las sesiones anteriores.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó las actas de las sesiones de 25 de junio y 2 de julio de 2014.

## **2.- “Busturia 2020” Tokiko Ekintza Plana.-**

Osoko Bilkurak, aldeko sei botorekin eta hiru abstentziorekin, Busturiarako Agenda 21en baitako “Busturia 20120” Tokiko Ekintza Plana onartu zuen.

Plana Udal Consulting, S.L. enpresaren lankidetzeta eta herritarren partaidetzarekin burutu da.

Tokiko Ekintza Planak, 5 ildo estrategikotan zehaztuta eta 29 jarduketa programatan banatuta, guztira 116 proiektu edo ekintza zehatzez osatuta egituratzen da.

EAJko zinegotziek beren kontrako botoa justifikatu zuten esanez plana ez zela errealista, anbizio handiegikoa zela, helburu oso generikoak zituela eta adierazleetan Udalak eragin gutxi duela.

Alkate andreak dokumentu horrek irudi bat ematen duela udalaren jasangarritasunaren gainean esan zuen, eta, Udalak hainbat adierazlerekin zerikusirik ez badu ere, bere ezaguerak jarrera bat edo beste izatera eraman dezaketela.

## **2.º.- Plan de acción local “Busturia 2020”.-**

El Ayuntamiento Pleno, por seis votos a favor y tres abstenciones, acordó aprobar el Plan de Acción Local “Busturia 2020” de la Agenda 21 para el municipio de Busturia.

El Plan se ha elaborado con la colaboración técnica de Udal Consulting, S.L. y con participación ciudadana.

El Plan de Acción Local se estructura 5 líneas estratégicas se desarrollan en un nº de 29 programas, integrando un total de 116 proyectos o acciones concretas.

Los concejales de EAJ-PNV justificaron su voto en contra en la falta de realismo del plan, excesivamente ambicioso, poco realista, con objetivos muy genéricos y unos indicadores en los cuales el Ayuntamiento tiene poca influencia.

La Sra. Alcaldesa le dijo que ese documento da una imagen sobre la sostenibilidad del municipio y que aunque algunos indicadores sean ajenos al Ayuntamiento (por ejemplo el índice de paro), su conocimiento puede llevarle a actuar en uno u otro sentido.

## **3.- Alkateen zuzeneko hautaketarako proposamena.-**

Osoko Bilkurak Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoaren aldaketari buruz aurkezturiko mozioa eztabaidatu zuen, alkateak hautatzeko sistemari dagokionez, eta ondokoak adostu zituen:

1.- Aldeko 3 botorekin eta kontrako 6 botorekin, EAJko zinegotziek aurkeztutako hurrengo mozio alternatiboa ez onartzea:

“Espainiako Gobernuak Hauteskunde Lege Orokorren erreformari buruz adierazitakoaren

## **3.º.- Propuesta de elección directa de alcaldías.-**

El Ayuntamiento Pleno deliberó sobre las mociones presentadas sobre la modificación de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General sobre el sistema de elección de alcaldes y acordó:

1.- Por 3 votos a favor y 6 en contra, rechazar la siguiente moción alternativa presentada por los concejales de EAJ-PNV.

“Ante el anuncio realizado por el Gobierno de España sobre la reforma de la Ley Electoral General y teniendo conocimiento de tal intención a través de

aurrean, eta asmo horren berri hedabideen bitartez jaso izanik, Udaletxe honek bere gaitzespen osoa adierazten dio, elkarrizketarik egon ez eta gainontzeko talde politikoekin adostasunik bilatu ez delako, udal eta foru hauteskundeak gertu egotean ez delako unerik aproposena eta Gernikako Autonomia Estatutuan jasotako Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenak urratzen dituelako.”

2.- Aldeko 6 botorekin eta 3 abstentziorekin, Bilduko zinegotziek aurkeztutako hurrengo mozioa onartzea:

“Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskundeen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzieroren gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inposatu dituzten murrizketen gauzaperaren bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakaturik. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Eredu publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren enpresak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredu, berez ahula izanik ere, erroto okerrera aldatu nahi izan da Madrillgo Gobernutik.

Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiek, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin bada ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren

los medios de comunicación, este Ayuntamiento muestra su frontal rechazo a dicha reforma motivado por la ausencia de dialogo y búsqueda de consenso con el resto de los grupos políticos, la inoportunidad del momento por la proximidad de las elecciones municipales, forales y autonómicas y por vulnerar las competencias atribuidas a la Comunidad Autónoma Vasca establecidas en el Estatuto de Autonomía de Gernika.”

2.- Por 6 votos a favor y 3 abstenciones, aprobar la siguiente moción presentada por los concejales de Bildu.

“Siendo las instituciones más cercanas a la ciudadanía, debería ser un ejercicio diario profundizar en el funcionamiento abierto, plural y democrático de los ayuntamientos. Estas instituciones deben ser el reflejo fidedigno de la voluntad popular antes, durante y después de las elecciones. Asimismo, por encima de cualquier interés partidista, económico y financiero, el servicio y el compromiso para con la ciudadanía deben de ser, sin excepción alguna, las características primordiales de la política municipal.

Sin embargo, nuestros ayuntamientos están sufriendo durante estos últimos años ataques políticos sin precedentes. Por medio de los recortes y restricciones que Europa propone y Madrid impone, se han limitado extraordinariamente las capacidades políticas y económicas de los ayuntamientos, agravando una situación que ya era entonces suficientemente grave. Todas y cada una de las medidas que se nos quieren imponer desde Madrid, además de destruir la autonomía municipal, intentan abrir todas las puertas para que los recursos de que disponen los ayuntamientos pasen a manos privadas. Debilitando, de este modo, el ámbito público a favor de las empresas que se mueven en el ámbito privado. Aún así, aún siendo de por sí sumamente débil, el gobierno de Madrid quiere cambiar de raíz el modelo municipal de estos últimos años y modificarlo a peor. Reiteradamente, a pesar de que todas las instituciones de Euskal Herria sur hayan proclamado y reclamado la necesidad de fortalecer la autonomía municipal y de tomar medidas que acerquen los ayuntamientos a la ciudadanía, Madrid permanece ajeno a estas reivindicaciones y responde con la imposición.

El mismo Partido Popular que ha venido restringiendo las competencias políticas municipales e impulsando

honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritzia kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrikapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditugure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetza eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herritarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeak aukera izateko. Gure udaletan demokraziari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, Busturiko Udalak, honako puntu hauek onartzen ditu: —

1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen gaintik, PP-ren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiak sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldekarreko aldaketa errefusatzeko du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeak eskubidea aldarrikatu nahi du.

3.- Udal honek, bere jardueran herritarren parte-hartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ez-eziko udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.”

durante estos últimos años este tipo de medidas, pone sobre la mesa una propuesta para la elección directa de las alcaldías. Aunque no se conoce todavía en su totalidad, se ha hecho pública la propuesta para proclamar y nombrar directamente alcalde a la persona cabeza de lista de la candidatura más votada. A pocos meses de las elecciones municipales, nos hallamos con una propuesta que responde principalmente a los intereses del Partido Popular. Como es habitual en este partido y, haciendo caso omiso a cualquiera otra opinión (especialmente, sin hacer caso alguno a las reivindicaciones realizadas por los ayuntamientos y entidades locales de Euskal Herria), el PP sigue dando pasos. Sigue dando pasos, imponiendo sus intereses políticos partidistas en nuestros municipios y dejando de lado la opinión de la mayoría de la ciudadanía. Las alcaldías y los gobiernos municipales deben representar la voluntad mayoritaria de la ciudadanía. El papel referencial de la alcaldía es importante, pero no como representante de un modelo presidencialista, sino como representante de la mayoría ciudadana.

Creemos que es necesaria una reforma profunda de la ley electoral. Pero no para defender los intereses de un partido o de otro, sino para que la ciudadanía vasca tenga poder de decisión al definir la estructura municipal e institucional. Con la finalidad de abrir las puertas de nuestros ayuntamientos a la democracia, dejando a un lado posturas presidencialistas y autoritarias, propiciando que la palabra de la ciudadanía tome su fuerza directamente en nuestros municipios. La reforma a realizar debe ir en sentido directamente contrario a la propuesta realizada por el PP.

En base a todo ello, el Ayuntamiento de Busturia acuerda los siguientes puntos:

1. Este Ayuntamiento rechaza la reforma de ley que desea llevar a cabo el PP desde el gobierno de Madrid para proclamar y nombrar alcalde directamente a la persona cabeza de lista de la candidatura más votada, ya que el PP prioriza sus intereses partidistas por encima de los intereses de municipios y ciudadanía. En este sentido, esta corporación rechaza cualquier reforma unilateral de la ley electoral promovida por intereses partidistas.

2. Este Ayuntamiento quiere reivindicar el respeto a la voluntad de las entidades locales y municipales de Euskal Herria y su derecho a organizarse en base a las

necesidades de la ciudadanía vasca.

3. Este Ayuntamiento adquiere el compromiso de impulsar herramientas para la participación ciudadana y para la democracia directa, tanto en la propia conformación de la corporación como en las decisiones municipales más relevantes.

4. Este Ayuntamiento hará llegar esta resolución al gobierno de Madrid y la divulgará a la ciudadanía.”

#### **4.-Udal Gaztedin ordezkari aritzeko lagunen izendapena.-**

Osoko Bilkurak, aldeko sei botorekin eta kontrako hiru botorekin, erabakia hartu zuen Udal Gazteko Eskualdeko Batzordean Busturiako Udalaren ordezkari Miren Begoña Salbidegoitia Arana izendatzea, eta Miren Nekane Renteria Etxebarria haren ordezkari. EAJko zinegotziek adierazi zuten kontrako botoa ematen zutela ez zaielako aukerarik ematen udaleko gaietan parte hartzeko.

Alkate andreak erantzun zion Batzorde Informatzailean gaia eztabaidatu zenean izenak proposatzeko eskatu zela eta ez zela proposamenik egon, eta esan zela ez zela inolako arazorik egongo proposatzen zen edozein pertsona onartzeko.

Zearreta jaunak erantzun zion haiek proposamen hau onartzeko prest zeudela, udalaz gaindiko bestelako ordezkarietara hedatuz gero.

Alkate andreak erantzun zion ez zuela uste egokia zenik legegaldaren une honetan ordezkariak aldatzen hastea.

Zearreta jaunak amaitu zuen esanez bere taldeak parte-hartze txikia zuela.

#### **4.º.- Nombramiento de representantes en Udal Gaztedi.-**

El Ayuntamiento Pleno, por seis votos a favor y tres en contra, acordó designar a Miren Begoña Salbidegoitia Arana, como titular, y Miren Nekane Renteria Etxebarria, como suplente, en calidad de vocales miembros de la Comisión Comarcal de Udal Gaztedi, en representación del Ayuntamiento de Busturia.

Los concejales de EAJ-PNV manifestaron que votaban en contra porque se seguía demostrando que no se les daba participación en los asuntos municipales.

La Sra. Alcaldesa les replicó que, cuando se debatió el asunto en la Comisión Informativa, se pidió que se plantearan nombres y no hubo ninguna propuesta y que no había ningún inconveniente en aceptar cualquier nombre que surgiese.

El Sr. Zearreta le respondió que ellos estaban de acuerdo en aceptar esta propuesta, siempre que se extendiese a otras representaciones supramunicipales.

La Sra. Alcaldesa le respondió que, a estas alturas de la legislatura, no le parecía procedente comenzar a cambiar las representaciones.

El Sr. Zearreta concluyó ratificándose en que su grupo no tenía mucha participación.

#### **5.- Ordezkaritza UEMAn.-**

Osoko Bilkurak, aldeko sei botorekin eta kontrako hiru botorekin, erabakia hartu zuen UEMAn Berezi Etxebarria Rivasen ordezkari Nekane Renteria Etxebarria izendatzeko.

EAJko zinegotziek aurreko erabakian adierazitako iritzia berretsi zuten.

#### **5.º.- Representación en UEMA.-**

El Ayuntamiento Pleno, por seis votos a favor y tres en contra, acordó designar a Nekane Renteria Etxebarria como representante suplente en UEMA, en sustitución de Berezi Etxebarria Rivas.

Los concejales de EAJ-PNV reiteraron la opinión manifestada en el acuerdo anterior.

#### **6.- Hiri-hondakin solidoak biltzeko eta hondakinak biltegiara eramateko zerbitzuaren kontratuaren esleipena.-**

Ikusita Kontratazio Mahaiaren proposamena, Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen hiri-hondakin solidoak biltzeko eta biltegiara eramateko zerbitzuaren kontratua Inbisa-Servicios y

#### **6.º.- Adjudicación del contrato del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos y su transporte al centro de tratamiento.-**

Vista la propuesta de la Mesa de Contratación, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó adjudicar el contrato del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos

Medio Ambiente enpresari esleitzea, 54.286,82 €an gehi BEZI dagozkion 5.428,68 €, eta Baldintza Administratibo Berezien Orrian jasotako gainerako baldintzen zein kontratistaren proposamenean jasotako zehaztapenen arabera.

y su transporte al centro de tratamiento a Inbisa–Servicios y Medio Ambiente, por un precio de 54.286,82 €, más 5.428,68 €, correspondientes al IVA, y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista.

## 7.- Euskara ikastaroen esleipena.-

Ikusita AEK Euskaraz Koop.-ek eta Aita Villasante Euskal Euskaltegiak 2014-2015 ikasturtean euskara eskolak emateko aurkeztutako eskaintzak, Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen lehena aukeratzea ezaugarri tekniko hobeak eta ekonomikoak dituen eskaintza duelako.

## 7.º.- Adjudicación de cursos de euskera.-

Vistas las ofertas presentadas por AEK Euskaraz Koop. y Aita Villasante Euskal Euskaltegia, para la impartición de clases de euskera durante el curso 2014-2015, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó seleccionar a la primera de ellas por tratarse de la oferta con mejores características técnicas y económicas.

## 8.- Galde-eskeak.-

Zearreta jaunak “Berrien-berri” aldizkarian dagoen berdintasunik eza salatu zuen. Izan ere, EAJ taldeari gaiaren gaineko iritzia adierazteko 150 hitzeko muga jarri zitzaion, euren testua euskarara itzuli ezinda, eta Bildu taldeari, ordea, ez zitzaion muga hori jarri eta testu elebiduna egiteko aukera eman zitzaion.

Alkate andreak galdetu zien ea zein zen proposatzen zuten irtenbidea, eta Zearreta jaunak esan zuen bi taldeen baldintzak berdintzea eta gaiak irekiagoak edo guztiz libreak izatea zela.

Jarraian, Zearreta jaunak hurrengo testua irakurri zuen:

*“...Ertzaintzaren Brigada Mugikorraren unitateek atzo jaietako egun handian bandera espainiarra jaso ondoren Bilboko Udalaren kontrako erasoak saihestu zituzten. Goizean, gazte taldeek, aurpegia estalita, poliziarri aurka egin zioten jai barrutian ertzainei iltze, harri, torloju eta errodamenduz beteriko suziriak botaz. Hamasei pertsona atxilotu zituzten eta beste hainbeste zaurituak izan ziren, haietako hiru ertzainak izanda.*

*Lau banderak -espainiarra, ikurrina, Bilboko eta europarra- jaso ziren goizeko hamarretan Udaletxeko balkoi nagusiko mastetan.*

*...istilu bortitzenak eta Ertzaintzak eginiko 16 atxilotetak Areatza pasealekuan jazo ziren, eguerdia baino lehen. Eremu horretan, Udaletxean bandera espainiarra jartzeagatik poliziarri aurka egin zioten pertsona batzuek hiri-altzariak hondatu zituzten.*

*...istiluetan parte hartu zutenek estoldak apurtu, metropolitanoko obretako hesiak erauzi eta zabor*

## 8.º.- Ruegos y preguntas.-

El Sr. Zearreta denunció la desigualdad que se produce en la revista “Berrien-berri” ya que el grupo de EAJ-PNV se limita a las 150 palabras fijadas como tope para manifestar su opinión respecto del tema señalado, lo que les obliga a no traducir su texto a euskera, mientras que el grupo de Bildu no tiene esa limitación y puede incluir el texto en formato bilingüe.

La Sra. Alcaldesa les preguntó qué solución proponían y el Sr. Zearreta dijo que igualar las condiciones de ambos grupos y que los asuntos fuesen más abiertos o totalmente libres.

A continuación el Sr. Zearreta dio lectura al siguiente texto:

*“...El despliegue de unidades de la Brigada Móvil de la Ertzaintza impidió ayer que se registraran agresiones contra el Ayuntamiento de Bilbao tras la izada de la bandera española en el día grande de las fiestas locales. A lo largo de la mañana, grupos de jóvenes con el rostro cubierto se enfrentaron a la policía en el recinto festivo, arrojando a los agentes cohetes cargados con clavos, piedras, tornillos y rodamientos. Dieciséis personas fueron detenidas durante los incidentes y otras tantas resultaron contusionadas, de ellas, tres miembros de la policía vasca.*

*Las cuatro banderas -la española, la ikurriña, la de Bilbao y la europea- fueron izadas en los mástiles del balcón principal del Ayuntamiento a las diez de la mañana.*

*... los incidentes más violentos y las 16 detenciones practicadas por la Ertzaintza se produjeron en el paseo del Arenal antes de mediodía. En esta zona algunas de las personas que se enfrentaron a la policía por la*

*edukiontzia irauli zituzten”.*

Aipaturikoa albiste bat besterik ez da. Bilboko udaletxean bandera espainiarra ipini zenean gertatutakoak horrela kontatu zizkiguten egunkariak. Gaur, Busturian, bandera espainiarra jarri da, baina ez da istilurik egon.

“Ikurrina bai, espainola ez”, “Azkuna espainola”, “alkate faxista daukagu”...

Honelako oihuak, irainak, mehatxuak... entzun zituen Iñaki Azkunak, EAJko alderdikide eta Bilboko alkate izan zenak.

Aldiz, gaur, hemen, gure herrian, Busturiako alkate andereak ez du horrelako oihurik edota irainik entzungo. Izan ere, indarkeria erabili zuten berberak jarri baitute gaur bandera espainiarra gure herrian.

Gaurko egunean, batzuoak amorrua sentitzen dugu. Arrotza dugun ikurra Busturian ikusten dugulako, bai, baina baita garai baten deskribatutako ekintza lotsagabeak, bidegabeak, koldarrak... gauzatu zituztenek, gaur, Espainiako bandera “normaltasunez” jartzen dutelako ere. Egon dira, bai, “teatroak”, eszenifikazioa jorratu eta *loratu* egin da, bai, baina “legezko betebeharez”, espainiar legea bete behar izanda, bandera espainiarra ipini dute.

Antzerkiak amaitu ondoren, amorruaz aparte, lotsa ere sentitzen dugu. Lotsa, bai, batzuek izan zuten eta duten jarreragatik.

Jakin badakigu, bai, beste udal batzuk -Alderdi Jeltzaleak gobernatzeko dituenak barne- gauza bera egitera beharturik egon direla. Bilbo lehena baino ez zen izan. Baina EAJko kideok ez lehen, ez eta orain ere, ez dugu bortizkeriaren, gezurraren eta hipokresiaren zama gure lepoan eroango, Ezker Abertzaleak eroango baitu...

Dagoeneko historian idatzirik dago: XXI. mende honetan, **Ezker Abertzaleak** bandera espainiarra jarri digu Busturian.”

Bilduko Salbidegoitia andreak erantzun zion egungo egoera ez dela une hartakoa bezalakoa, oraingoan Gobernuaren Ordezkariek demanda judicialak planteatu dituela eta Epailak bandera espainiarra jartzeko agindu duela.

Zearreta jaunak erantzun zuen Azkuna jaunak ere legeak hala aginduta ipini zuela Espainiako bandera.

Alkate andreak EAJko zinegotziak kritikatu zituen, Batzorde Informatzailean gaia eztabaidatu zenean agertu ez zirenez, bandera espainiarra jartzearen alde edo kontra agertzea saihestu zutelako, eta hori ez bada hipokresia, ausardia ere ez da.

*presencia de la bandera española en el Ayuntamiento causaron destrozos en el mobiliario urbano.*

*...los participantes en los disturbios rompieron alcantarillas, arrancaron vallas de las obras del metropolitano y volcaron varios contenedores de basura”.*

Todo esto es sólo una noticia. Es una noticia que nos contaron los periódicos que pasó en el Ayuntamiento de Bilbao cuando se puso la bandera española. Hoy en Busturia se ha puesto la bandera española, pero no ha habido incidentes.

Ikurriña bai, espainola ez”, “Azkuna español”, “tenemos un alcalde que es un facha”...

Iñaki Azkuna, miembro de EAJ-PNV y Alcalde de Bilbao, escuchó gritos, insultos y amenazas como estas.

Por lo contrario, hoy, aquí, en nuestro pueblo, la Sra. Alcaldesa de Busturia no va a oír gritos ni insultos como éstos. Precisamente los que gritaron e insultaron, y los mismos que usaron la violencia, hoy han puesto la bandera española en nuestro pueblo.

Hoy algunos sentimos rabia, porque vemos en Busturia un símbolo extraño, sí, pero también porque los que un día realizaron esos actos sinvergüenzas, injustos y cobardes, hoy van a poner la bandera española con normalidad. Ha habido teatros y se ha labrado y ha florecido la escenificación, pero para cumplir la Ley, para cumplir la Ley española, han puesto la bandera española.

Después de finalizar los teatros, aparte de la rabia, también sentimos vergüenza. Vergüenza, sí, por la actitud que tuvieron y que tienen algunos.

Ya sabemos que otros Ayuntamientos, incluidos los que gobierna el PNV- han estado obligados a hacer lo mismo. Bilbao fue el primero. Pero los miembros de EAJ-PNV, ni antes ni ahora, no vamos a llevar a nuestra espaldas el peso de la violencia, de la mentira y de la hipocresía, lo llevará la Izquierda Abertzale.

Ya está escrito para la historia: en este siglo XXI la Izquierda Abertzale ha puesto la bandera española en Busturia.”

La Sra. Salbidegoitia de Bildu le replicó que la situación actual no es la misma que la de aquel momento, ya que ahora el Delegado del Gobierno ha planteado demandas judiciales y es el Juez el que ha ordenado la colocación de la bandera española.

El Sr. Zearreta replicó que el Sr. Azkuna también colocó la bandera española por imperativo legal.

La Sra. Alcaldesa criticó a los concejales de EAJ-PNV, ya que

Zearreta jaunak erantzun zuen haiek ez dakitela EAJko zinegotzien sentimenduak zein diren, baina argi dagoela erabakia hartu zenean haiek ez zirela egon.

Zulueta jaunak adierazi zuen bera pozten zela Busturian bandera espainiarra jartzean biolentziarik egon ez izanaz, eta hori epai judizialak aginduta egin zela.

Arrasate andreak EAJ kritikatu zuen, bandera espainiarra ezarri beharrari erantzuteko Ikurrinari egin zitzaion omenaldira ez joateagatik, jendeak, harrituta, jarrera hori hipokritatzat jo baitzuen.

Eta besterik gabe, alkate andreak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, alkate andreak eta egiaztatzen dudak idazkariak sinatuta.

Alkatea/La Alcaldesa,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

con su ausencia de la Comisión Informativa cuando se debatió el asunto evitaron manifestarse a favor o en contra de la colocación de la bandera española, lo cual, si no es hipocresía, tampoco es valentía.

El Sr. Zearreta contestó diciendo que ellos no saben cuáles son los sentimientos de los concejales de EAJ-PNV, pero que lo que queda claro es que, en ese momento, cuando se tomó la decisión, ellos no estuvieron.

El Sr. Zulueta manifestó que él se alegraba de que no hubiese habido violencia en el momento de colocar la bandera española en Busturia, y que ello se hizo de forma impuesta por la sentencia judicial.

El Sr. Zearreta manifestó que ojalá en el caso del Ayuntamiento de Bilbao hubiese ocurrido lo mismo.

La Sra. Arrasate criticó a EAJ-PNV por no asistir a los actos de homenaje a la Ikurriña que se celebraron como respuesta a la imposición de la bandera española, lo cual extrañó a mucha gente, y calificó esa actitud de hipócrita.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. alcaldesa y el secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez